AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUA HIRIKO UDALA

# 2018ko AZAROAREN 25a

## "EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA"

## ERMUAK INDARKERIA MATXISTARI, EZ!

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ

NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES



Las gentes de Ermua decimos NO, **que no estamos dispuestas a tolerar que la violencia contra las mujeres se convierta en una costumbre o en una noticia a asumir como algo natural, porque no lo es.**

Los colectivos, las personas y las asociaciones que integran el Consejo municipal de Igualdad venimos denunciando, día a día, año tras año, que la violencia contra las mujeres -sean cis o trans-, esa violencia continuada que nos sigue golpeando una y otra vez, es una violencia fijada y afianzada en la propia estructura de nuestras sociedades, presente desde hace siglos a nivel universal –como lo están el androcentrismo y el patriarcado- y que su objetivo es mantener a las mujeres en una posición de subordinación.

Por desgracia, sabemos bien que se manifiesta con agresiones de distinta intensidad e impacto, hasta llegar al asesinato. Todas ellas constituyen un grave atentado contra los derechos humanos de quienes las sufren, hasta un punto que en ningún otro contexto se permitiría.

Según datos del Ministerio de Igualdad, desde que existen registros -2013- los niños y niñas asesinadas en casos de violencia de género contra sus madres ascienden a 27. En lo que va de año, son 43 las mujeres asesinadas, según las cifras oficiales. Pero las muertas han sido muchas más, aunque las estadísticas no las reflejen.

Sabemos también que la desigualdad y la discriminación de género están en el origen de la violencia contra las mujeres, que se da en todos los ámbitos de la vida (en la familia, en el trabajo, en el ocio… hasta en contextos institucionales), y hemos manifestado una y otra vez nuestro compromiso para conseguir una sociedad, y en concreto, un Ermua, nuestro pueblo, **más igualitario y libre de violencia machista.**

Las declaraciones son importantes, y hay que hacerlas, pero no bastan. Tenemos que hacer mucho más.

Queremos un mundo igualitario, sí, y queremos un Ermua donde las mujeres no sufran maltrato físico ni psicológico, donde las mujeres no pierdan oportunidades educativas ni laborales por causa de hombres que las agreden, que las matan; queremos un Ermua donde las mujeres rían, trabajen, bailen, se comprometan, cuiden, amen … a quien quieran, cuando quieran y de la manera que lo deseen.

No queremos educar mujeres valientes, que no sientan miedo cuando van solas por la calle, sino mujeres libres, que caminen por donde quieran con la certeza de que ni un solo hombre, nadie, va a acosarlas ni a agredirlas por el hecho de ser mujeres.

Somos conscientes de que, lamentablemente, en nuestro pueblo, como en tantos, todavía quedan muchas agresiones machistas escondidas, muchas mujeres que no se atreven a denunciarlas, incluso niñas y niños víctimas de esa misma violencia. Y nos duele.

Por eso, una vez más, nos reunimos para manifestarles que estamos con ellas, que las creemos y que haremos todo lo posible para que puedan recuperar sus vidas. Y para instar –a cada quien en la medida de sus responsabilidades- para que se haga justicia, se pongan recursos suficientes, se facilite el acceso a ellos y se garantice su protección y el apoyo necesario.

Porque queremos un Ermua donde los niños y las niñas crezcan alegres, felices, sin tener que protegerse tras las puertas en un entorno familiar donde la violencia machista les afecte como víctimas; un Ermua donde ellas tengan las mismas oportunidades que ellos, donde no importe a qué sexo perteneces sino las capacidades que como persona única puedes desarrollar.

Queremos un Ermua donde los hombres se hagan conscientes de que con sus privilegios machistas están mermando los derechos básicos de las mujeres, donde los hombres se comprometan a abandonar esos privilegios y revisen sus comportamientos, los de a diario, en sus casas, en sus trabajos, en sus cuadrillas… para restituir a las mujeres, a la mitad de la población, la posición que les corresponde, igualitaria y equivalente.

Queremos un Ermua donde las instituciones se responsabilicen y garanticen los derechos humanos de quienes enfrentan una vida golpeada por la violencia machista, que propongan medios y recursos que permitan visibilizar todos los impactos de la violencia y todas sus expresiones, contribuyendo a su deslegitimación social.

Un Ermua donde la ciudadanía reconozca la gravedad, el alcance e impacto a todos los niveles de este problema social, se muestre comprometida y se active públicamente para reducirla y eliminarla. Todas y todos podemos hacer mucho por ello.

En el marco de la conmemoración del 25 de Noviembre, Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres, el Ayuntamiento de Ermua reafirma su compromiso de seguir dando pasos en este camino, que se concreta en:

- reforzar todos los planos de la intervención: la prevención, la detección, la atención, la reparación, la protección y la coordinación, en el marco de un Protocolo local, que se está evaluando y del que surgirán propuestas e iniciativas de mejora.
- elaborar de manera participativa un *Plan sectorial local* para la lucha contra este tipo de violencia y ponerlo en marcha, con objetivos y medidas que garanticen los derechos y favorezca la autonomía personal de las mujeres que enfrentan estas situaciones, defendiendo además el interés de las personas menores de edad implicadas en ellas.
- garantizar un servicio especializado de asistencia a las víctimas supervivientes de violencia contra las mujeres, dándoles voz y protagonismo, evitando que vivan nuevas victimizaciones en su proceso de denuncia o en la atención que reciben.
- analizar los recursos disponibles y los necesarios para la completa recuperación de las mujeres y otras víctimas supervivientes, visibilizando todos los impactos de esta violencia y todas sus expresiones.
- proteger a la infancia de manera especial frente a este tipo de violencia.

- mantener la alianza y colaboración con los colectivos de mujeres y feministas, así como con la sociedad civil y ciudadanía en su conjunto, en la lucha contra la desigualdad y la violencia machista y en el impulso de un cambio en la estructura de nuestra sociedad, que implique a todo tipo de instituciones públicas, medios de comunicación, agentes del ámbito laboral, cultural, social y económico, así como a toda la sociedad en su conjunto.

----------------------

La lista trágica de los feminicidios, por desgracia, parece que no tiene fin. Lamentablemente, hay muchas mujeres asesinadas de las que no llegamos a conocer ni siquiera su nombre. Pero todas tenían una vida, sueños, preocupaciones, personas a su alrededor que las querían y que las recuerdan. Nombrarlas es la más básica muestra de reconocimiento, que es uno de los pasos de la reparación, y por eso vamos a nombrar a algunas de las mujeres que fueron asesinadas por hombres que, amparados en el machismo más brutal, creyeron que tenían el máximo poder sobre ellas, mujeres que la sociedad no supo proteger.

Hoy, con nuestro máximo respeto, traemos a esta plaza a algunas de esas mujeres asesinadas en 2018 en el estado español. Como ellas, hay muchas más, hay niños y niñas que ni siquiera son reconocidas oficialmente como víctimas de violencia de género o de feminicidio, asesinatos no esclarecidos, en estudio, mujeres desaparecidas… A todas ellas, también a quienes no podemos nombrar, les brindamos nuestro homenaje.

| | |
|---|---|
| 1. Jénnifer Sofia | 2. María Isabel |
| 3. Celia | 4. Mari Paz |
| 5. María del Pilar | 6. Leyre |
| 7. María Adela | 8. María Estela |
| 9. María Paz | 10. Ana Belén |
| 11. Dolores | 12. Natalia |
| 13. María del Carmen | 14. Ivanka |
| 15. Patricia | 16. María Dolores |
| 17. Doris | 18. Eva |

| | |
|---|---|
| 19. María José | 20. Yésica |
| 21. Silvia | 22. Jhoesther |
| 23. María del Mar | **24. NOMBRE DESCONOCIDO** |
| 25. María Soledad | 26. Sara María de los Ángeles |
| 27. Josefa | 28. Nuria |
| 29. Francisca de Jesús | 30. Maguette |
| 31. María Magdalena | 32. María Manuela |
| 33. Raquel | 34. Anna María |
| 35. Martha Josefina | 36. Aicha |
| 37. María Isabel | 38. María José |
| 39. Cristina | 40. María Judith |
| 41. Ali | 42. Yolanda |
| 43. Fátima | 44. María |

¡¡NI UNA MENOS, NI UNA MUERTA MÁS!!

2018ko AZAROAREN 25a

"EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA"

# ERMUAK INDARKERIA MATXISTARI, EZ!

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES



Ermuko jendeak EZETZ diogu**, ez gaudela prest emakumeen kontrako indarkeria gauza naturaltzat hartu beharreko ohitura edo albiste moduan onartzeko, naturala ez delako.**

Berdintasuneko Udal Kontseilua eratzen duten kolektibo, pertsona eta elkarteek, egunez egun, urterik urte, salatzen ari dira cis zein trans emakumeen kontrako indarkeria, behin eta berriz astintzen gaituen etengabeko indarkeria; gure gizarte-egituretan errotuta eta finkatuta dagoen indarkeria da, duela gizaldiak unibertsoan ezarria –androzentrismoa eta patriarkatua bezalaxe-, emakumeak menpe edukitzea helburu duena.

Zoritxarrez, badakigu intentsitate eta inpaktu ezberdineko erasoen bidez azaltzen dela, hilketarainokoak. Guztiak dira giza-eskubideen kontrako atentatu larriak, beste ezein testuingurutan onartuko ez liratekeenak.

Berdintasuneko Ministerioaren datuen arabera, erregistroak daudenetik, hau da: 2013tik hona, amaren kontrako genero-indarkeriaren ondorioz hildako umeak 27ra iristen dira. Aurten, orain arte, 44 emakume hilak izan dira, zifra ofizialen arabera, baina hildakoak askoz gehiago dira, nahiz eta estatistiketan azaldu ez.

Badakigu bizitzako arlo guztietan (etxean, lanean, aisian… eta erakunde mailan ere bai) dagoen genero-desberdintasuna eta –diskriminazioa direna emakumeen kontrako indarkeriaren eragile, horregatik behin eta berriz agertu dugu gizarte **berdintasunezkoagoa eta indarkeria matxistarik gabekoa**,lortzeko gure konpromisoa eta bereziki Ermuan.

Adierazpenak garrantzitsuak dira, eta egin egin behar dira, baina ez dira nahikoa. Askoz gehiago behar da.

Berdintasunezko mundu bat nahi dugu, bai, eta emakumeek tratu txar fisiko edo psikologikorik pairatuko ez duten Ermua bat, emakumeek, erasotzen eta hiltzen dituzten gizonen erruz, hezkuntza- edo lan-aukerarik galduko ez duten herria, eta barre, lan eta dantzan egingo dutenena, nahi dutena nahi dutenean eta gura duten moduan zaindu eta maitatu ahal izango duten emakumeen Ermua bat.

Ez dugu kalean barrean bakarrik joatean beldurrik ez duen emakume ausartarik hezi nahi, emakume askeak baizik, emakume izateagatik gizon bakar batek ere, inork ere, jazarri edo erasoko ez dituen ziurtasunaz kalean ibiliko direnak.

Badakigu gure herrian, beste askotan bezalaxe, zoritxarrez, eraso matxista asko dagoela oraindik ezkutuan, asko direla salatzera ausartzen ez diren emakumeak eta ume asko direla indarkeria horren biktima, horregatik gaude minduta.

Eta horrela hemen gaude bilduta berriz ere, beraiekin gaudela adierazteko, guk sinesten diegula esateko eta ahal dugun guztia egingo dugula beraien bizitzak berreskura ditzaten; justizia

(bakoitzaren erantzukizunen arabera) eta behar beste baliabide eskatzeko, eta horiek lortzeko laguntza eta babesa exijitzeko.

Umeak pozik, zoriontsu, haziko diren Ermua bat nahi dugulako, indarkeria matxistak biktima egin dituen famili batean ate ostean babestu beharrik ez dutela; emakumeek eta gizonek aukera berberak edukiko dituzten Ermua bat, bakoitzaren sexua berdin den eta pertsonaren gaitasunak aintzat hartuko diren herri bat.

Gizonek, beraien pribilegioekin, emakumeen oinarrizko eskubideak murrizten ari direla dakiten Ermua bat nahi dugu, pribilegio horiek uzteko konpromisoa hartuko duten eta etxean, lanean, lagun-artean egunero dituzten jokabideak aztertuko dituzten gizonen herri bat, emakumeei, biztanleriaren erdiari, dagokien lekua, berdintasun eta parekotasunezkoa. Itzultzeko.

Erakundeek indarkeria matxistak kolpekatutako bizitzari aurre egin behar dioten pertsonen giza-eskubideez arduratu eta ziurtatuko dituzten Ermua bat nahi dugu, indarkeriaren eta bere adierazpenen kolpe guztiak ikusarazten laguntzeko -gizartearen onarpenik izan ez dezaten- bitarteko eta baliabide guztiak jarriko dituzten erakundeak dituen herri bat.

Arazo sozial honen larritasuna, irismena eta inpaktua aintzakotzat hartzen dituzten herritarren Ermua bat, eta berori gutxitu eta ezabatzeko konpromisoa erakusten duten eta publikoki aktibatzen direnena. Denok egin dezakegu asko horretarako.

Azaroaren 25a, Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Egunaren oroitzapenaren esparruan Ermuko Udalak bide horretatik jarraitzeko bere konpromisoa berresten du. Nola?

- Esku-hartzearen alderdi oro sendotuz: prebentzioa, detekzioa, arreta, erreparazioa, babesa eta koordinazioa, egun ebaluatzen ari den toki-protokolo baten esparruan; bere baitatik sortuko dira hobekuntza-proposamen eta –ekimenak.

- Partaidetasunez, indarkeria honen kontrako borrokarako Tokiko Sektore Plan bat landuz eta jardunean jarriz, eskubideak ziurtatuko dituzten helburu eta neurriekin, egoera horretan dauden emakumeen autonomia pertsonala hobetzeko eta tartean diren adin txikikoen interesak defendatzeko.

- Emakumeen kontrako indarkeriatik bizirik atera diren biktimei lagunduz, ahotsa eta protagonismoa emanez, eta salatze-prozesuan, edota arreta ematean, berriz ere biktima egin gabe.

- Bizirik atera diren emakumeak eta gainerako biktimak erabat sendatu daitezen egun dauden baliabideak eta behar direnak aztertuz, indarkeria honen eta bere adierazpenen kolpe guztiak agerian utzita.

- Indarkeria horretatik haurrak batez ere babestuz.

- Emakume- eta feminista-taldeekin, eta gizarte zibil eta hiritar guztiekin, ituna eta lankidetza mantenduz, desberdintasuna eta indarkeria matxistaren kontra borroka egiteko eta gure gizartearen egitura-aldaketa eragiteko, erakunde publiko, hedabide lan-, kultur, gizarte- eta ekonomia-eremuko eragileak eta gizarte guztia orokorrean inplikatuta.

## 2018ko AZAROAREN 25a

**"EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA"**

## ERMUAK INDARKERIA MATXISTARI, EZ!



----------------------

Badirudi emakume-hilketen zerrenda tragikoak ez duela azkenik. Zoritxarrez, hildako emakume askoren kausan izenik ere ez dakigu, baina guztiek zuten bizitza bat, ametsak, kezkak, maitatzen eta gogoan dituzten pertsonak inguruan. Izendatzea aintzatespenaren adierazgarririk oinarrizkoena da, izan ere aintzatespena da erreparararazioaren pausoetako bat, horregatik gizonek hildako emakume zenbaiten izenak esango ditugu hemen, zeren gizonek, matxismorik basatienean babestuta, emakumeenganako gehienezko boterea zutela pentsatu baitzuten, gizarteak horiek babesten jakin ez zuela.

Gaur, errespeturik handienaz, 2018an espainiar estatuan gizonek hil dituzten emakume batzuen izenak dakartzagu plaza honetara. Askoz gehiago daude, haurrak ere bai, ofizialki genero-indarkeria edo feminiziodioaren biktimatzat eduki direnak, argitu gabe dauden hilketak, aztertzen ari direnak, desagertutako emakumeak. Horientzat guztientzat, bai eta izendatu ezin ditugunentzat ere, gure omenaldia:

| | |
|---|---|
| 1. Jénnifer Sofia | 2. María Isabel |
| 3. Celia | 4. Mari Paz |
| 5. María del Pilar | 6. Leyre |
| 7. María Adela | 8. María Estela |
| 9. María Paz | 10. Ana Belén |
| 11. Dolores | 12. Natalia |
| 13. María del Carmen | 14. Ivanka |
| 15. Patricia | 16. María Dolores |
| 17. Doris | 18. Eva |
| 19. María José | 20. Yésica |
| 21. Silvia | 22. Jhoesther |
| 23. María del Mar | 24. IZEN EZEZAGUNA |

| | |
|---|---|
| 25. María Soledad | 26. Sara María de los Ángeles |
| 27. Josefa | 28. Nuria |
| 29. Francisca de Jesús | 30. Maguette |
| 31. María Magdalena | 32. María Manuela |
| 33. Raquel | 34. Anna María |
| 35. Martha Josefina | 36. Aicha |
| 37. María Isabel | 38. María José |
| 39. Cristina | 40. María Judith |
| 41. Ali | 42. Yolanda |
| 43. Fátima | 44. María |

EMAKUME BAT ERE EZ GUTXIAGO, HILDAKO BAT ERE EZ GEHIAGO!!